

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Euskara eta Kultura Saila**

Bizkaiko Foru Aldundiaren 63/2019 FORU DEKRETUA, maiatzaren 28koa, zeinaren bidez ezartzen baitira Bizkaiko Foru Aldundiaren, haren erakunde autonomoen eta foru-sektore publikoaren jardun-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak.

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan euskararen erabilera sustatzeko politika Euskararen Erabilera Normalizatzeko 1982ko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean ezarritakoaren barruan kokatzen da. Botere publikoei dagokienez, lege horrek ezartzen du herritar guztiek dutela eskubidea Administrazio Publikoarekin dituzten harremanetan nahi duten hizkuntza ofiziala erabiltzeko. Horren haritik, eskubide hori bermatzeko, botere publikoek dituzten betebeharrak ezartzen ditu ere.

Bestalde, Euskal Funtzio Publikoari buruzko 1989ko uztailaren 6ko 6/1989 Legeak ezartzen du zein diren, euskara jakiteko nahitaezko tasunari dagokionez, euskal administrazio publikoetako lanpostuen zerrrendek jaso behar dituzten betekizunak.

Lege horietan xedatutakoa garatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen 1997ko apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak erregelamendu-esparru orokorra ezarri zuen euskararen erabilera normalizatzeko antolaketaren arloan euskal administrazio publikoek garatu behar duten jarduerarako. Jarduera horretan bete behar diren gutxieneko betekizunak, plangintzaldiak eta epeak arautzeaz gainera, dekretuak bost urteko planak egitera behartzen ditu EAEko administrazio publikoak. Plan horietan, aldi bakoitzerako aurrez ikusitako neurriak jaso behar dira, dekretuak ezartzen dituen esparru guztietarako.

Orain arte, Bizkaiko Foru Aldundiak bi foru-dekretu onartu ditu foru-esparruan hizkuntza ofizialen erabilera arautzeko: 43/2007 Foru Dekretua, martxoaren 13koa, hizkuntza ofizialen erabilera arautzen duena Bizkaiko Foru Aldundiaren jarduera esparruan (2007ko martxoaren 19ko 53/2007 Foru Dekretuaren bidez aldatu zen), eta 22/2009 Foru Dekretua, otsailaren 17koa, Bizkaiko Foru Aldundiaren jarduera esparruan hizkuntza ofizialen erabilera arautzen duena (aurrekoa indargabetu zuen).

Bestalde, 2018ko abenduaren 18an, Bizkaiko Foru Aldundiaren Euskararen erabilera normalizatzeko 2018-2022 epealdirako Plana onartu zuen Bizkaiko Foru Aldundiak (2018ko abenduaren 21eko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen), Bizkaiko Foru Aldundian aurreko plangintzaldietan hizkuntza-normalizazioaren arloan egindako lanari jarraipena emateko. Plan horretan Bizkaiko Foru Aldundian hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak eguneratu eta berritu egin behar direla ezartzen da.

Aurrekoarekin bat etorrira, eta EAEko eta, zehazki, Bizkaiko gizarteak izan duen bilakaera soziolinguistikoa aintzat hartzeko, foru-dekretu honen bidez, hizkuntza ofizialen erabileraren arloan indarrean dagoen araudia egokitu egin nahi da hizkuntza-normalizazioaren arloan gaur egun dagoen legeriaren arabera. Azalduetako guztia arautzeko, oinarritzat hartu dira Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak EAEko herri-administrazio eta erakundeetan euskararen erabilera normalizatzeko planetarako ezarritako irizpide orokorrak.

Foru-dekretu honen atariko tituluan xedapen orokorrak arautzen dira; lehen tituluan, hizkuntza ofizialen erabilerari buruzko arau orokorrak ezartzen dira; bigarrena, itzulpenarako irizpideei buruzkoa da, eta azkenik, hirugarrena, Bizkaiko Foru Aldundiaren jardun-eremuetan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideei buruzkoa da.

Foru-dekretu honek bete egiten ditu erregulazio onaren printzipioak; printzipio horiek Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legean aurrez ikusten dira eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 2017ko urtarrilaren



17ko 2/2017 Foru Dekretuaren 3. artikuluan jasotzen dira (foru-dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da).

Foru-dekretu horretan xedatutakoa kontuan hartuta, txosten hauek eman dira foru-dekretu hau egin denean:

1. Proiektua sustatu duen sailaren txosten juridikoa.
2. Generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena.
3. Kontrol ekonomikoari buruzko txostena.
4. Legezketasunari buruzko txostena.

Azaldutakoaren ondorioz, kontuan harturik zer ezartzen duten Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17.39.k) eta 64.3. artikuluek, eta Euskara eta Kultura Sailaren egitura organikoari buruzko erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2018ko martxoaren 6ko 22/2018 Foru Dekretuak emandako ahalmenak baliatuta, Euskara eta Kulturako foru diputatuak proposatu eta Bizkaiko Foru Aldundiak 2019ko maiatzaren 28ko bileran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu Bakarra.—*Bizkaiko Foru Aldundiaren, haren erakunde autonomoen eta foru-sektore publikoaren jardun-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak onestea*

Bizkaiko Foru Aldundiaren, haren erakunde autonomoen eta foru-sektore publikoaren jardun-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak onesten dira.

ATARIKO TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.—*Xedea*

Foru-dekretu honen xedea da bere aplikazio-eremuan sartutako erakundeetan bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko jarraibide orokorrak arautzea.

2. artikulua.—*Aplikazio-eremua*

Foru-dekretu honetan jasotako arauak eta irizpideak Bizkaiko Foru Aldundiko sail guztietan eta haren erakunde autonomoetan aplikatuko dira.

Halaber, foru-sektore publikoa osatzen duten erakundeek foru-dekretu honetan ezarritako irizpideak aplikatu beharko dituzte, bakoitzaren ezaugarri berezien arabera egokিত, beharrezkoa bada, eta bakoitzaren eskumen-eremuen barruan.

3. artikulua.—*Hizkuntzaren erabilera ez-sexista*

Foru-dekretu honek Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2018ko ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan ezarritakoa jasotzen du bere aplikazio-eremuan sartutako erakundeetako organoek, zuzenean edo beste pertsona edo erakunde batzuen bitartez, sortzen dituzten dokumentu eta euskarrietan inolako hizkera sexistarik ez erabiltzeari dagokionez.

4. artikulua.—*Komunikaziorako zailtasunak dituzten pertsonen irisgarritasuna*

Irisgarritasuna Sustatzeko 1997ko abenduaren 4ko 20/1997 Legean ezarritakoarekin bat etorruta, foru-dekretu hau aplikatu behar duten erakundeek sustatuko dute beharrezkoak diren ekintza positiboko neurriak hartzea komunikazio-sistemen irisgarritasuna bermatzeko, pertsona guztiek eta, batez ere, komunikaziorako zailtasunak edo muga psikiko zein sentzorialak (aldi baterakoak zein iraunkorrak) dituztenek era autonomoan erabil eta goza ditzaten.

**5. artikulua. — Zerbitzu-hizkuntzak, harreman-hizkuntzak eta lan-hizkuntzak**

1. Euskara eta gaztelania zerbitzu-hizkuntzak dira, herritarrekin erabiltzeko; harreman-hizkuntzak dira beste administrazioekiko harremanetarako, eta lan-hizkuntzak dira foru-dekretu hau bete behar duten erakundeen jarduerari dagokionez.

2. Erakunde horiek hizkuntza-eskubideak errespetatzen direla bermatu beharko dute herritarrekin ahoz zein idatziz dituzten harreman guztietan. Horren ondorioz, herritarrekin dituzten harreman guztietan euskara erabiltzeko aukera bermatuko dute, herritarrek egindako aukera aintzat hartuta.

3. Erakunde horietan euskara eta gaztelania lan-hizkuntzak direnez, hizkuntza ofizial batean egindako egintza juridikoei eta administrazio-jarduketek balio juridiko osoa izango dute; edonola ere, bermatu egin beharko da herritarrei aitortzen zaien hizkuntza aukeratzeko eskubidea.

4. Horretarako, lanpostuaren hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta duten foru-enplegatuei gaitasuna aitortzen zaie hizkuntza ofizial bietan lan egiteko, eta batean zein bestean egingo dute, lanaren baldintzak kontuan hartuta, eta euskararen erabilera normalizatze-ko planean ezarritakoarekin bat etorrira.

I. TITULUA

HIZKUNTZA OFIZIALAK ERABILTZEKO ARAU OROKORRAK**6. artikulua. — Ahozko komunikazio-harremanak**1. *Herritarren arreta*

- a) Kasu guztietan bermatu behar da herritarrei harrera euskaraz egiten zaiela, eta arreta hizkuntza horretan ematen zaiela. Jendeari harrera egiten dioten langileek euskaraz esango dute lehen hitza, eta herritarrek aukeratutako hizkuntzan jarraituko dute elkarrizketa, haren aukera eta hizkuntza ofizial bietatik edozein erabiltzeko eskubidea errespetatuta.
- b) Telefono bidezko arretan, langileek euskaraz erantzungo dute telefona hartzean, eta, gero, herritarrek aukeratutako hizkuntzan jarraituko dute elkarrizketa.
- c) Herritarrei ezin izango zaie eskatu hizkuntza batean edo bestean hitz egiteko. Foru-dekretu hau bete behar duten erakundeek beharrezkoak diren antolaketak neurriak hartuko dituzte herritarrek doazen espazio, bulego, arreta-gune eta bestelakoetan zerbitzua euskaraz ematen dela bermatzeko.

2. *Beste administrazio batzuekiko ahozko harremanak*

EAEko beste administrazio batzuekin edo euskara ofizial duten administrazioekin ahoz egiten diren komunikazioetan, foru-dekretu hau bete behar duten erakundeetako langileek euskaraz hitz egingo dute, eta komunikazioan hizkuntza horri eutsiko diote ahal den guztietan. Edonola ere, ahozko komunikazioak euskaraz izango dira hala eskatu duten administrazioekin.

3. *Ahozko barne-komunikazioak*

Erakundeetako langileen arteko ahozko barne-komunikazioetan aurreko zenbakian ezarritako irizpidea aplikatuko da. Horrez gainera, ahal den guztietan, ahozko komunikazioak euskaraz izango dira euskara erabiltzeko programa edo mikroplan bat (Era-Mi, etab.) duten unitateekin eta erakundeon erabilera-planetan euskarazko administrazio-unitatetzat jotako zerbitzuekin.

4. *Hartzaile jakinik ez duten mezuak*

Hartzaile jakinik ez dagoenean, komunikazio guztiak euskaraz eta gaztelaniaz izango dira, hurrenkera horretan. Irizpide hau komunikazio hauetan aplikatuko da, besteak beste: bozgorailuz emandako mezuetan, igogailuetako mezuetan, erantzungailu automatikoetako mezuetan, euskarri telematikoetako bidez egindakoetan, aurretiaz grabatutako mezuetan, ikus-entzunezkoen bidez emandakoetan... Komunikazio eleaniztunetan, hurrenkera hau erabiliko da: euskara, gaztelania eta, gero, erabili nahi diren gainerako hizkuntzak.

**7. artikulua. — Idatzizko komunikazio-harremanak**

Irizpide hauek idatzizko komunikazioetarako dira, bai paperean egiten direnetarako, bai bide telematiko eta digitalen bidez egiten direnetarako.

1. *Herritarrei bidaltzen zaizkien idatzizko komunikazioak*
 - a) Pertsona fisikoei eta pertsona juridikoei bidaltzen zaizkien idatzizko komunikazioak ele bietan egongo dira, edo, hala badagokio, euskara hutsean. Elebidunak izango dira, besteak beste, lehen komunikazioak, zabalkunde handikoak eta hartzaile jakinik ez dutenak. Bestalde, euskaraz izango dira pertsona fisikoak edo juridikoak aurretiaz adierazi badu euskaraz komunikatu nahi duela. Horrez gainera, euskara hutsean egon ahal izango dira kasu hauetan: hartzaileen hizkuntza euskara dela jakina denean, hartzaileekiko ohiko harremana euskaraz denean edo idazkien edukiaren gai nagusia edo xedea euskara denean.
 - b) Herritarrek bidalitako idazkiei erantzuten zaienean, honela jokatu da: erantzuna zein hizkuntzatan jaso nahi duten berariaz adierazi dutenean, egindako aukera errespetatutako da, eta, ez badute halakorik adierazi berariaz, euskaraz erantzungo zaie hizkuntza horretan jasotako idazkiei. Gainerako kasuetan, ele bietan bidaliko dira erantzunak.
 - c) Herritarren eskura jartzen diren inprimakiak eta gainerako dokumentu estandarizatuak ele bietan egongo dira. Erakundeek inprimakiak edo dokumentu estandarizatuak bete behar dituztenean herritarrei bidaltzeko, a) eta b) letretan ezarritako irizpideak beteko dira.
 - d) Ez da inola ere bueltatuko jasotako idazkia itzulita bidal dezaten.
2. *Beste administrazio batzuei bidaltzen zaizkien idatzizko komunikazioak*
 - a) Foru-dekretu honen 5. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira, administrazio publikoen arteko euskarazko komunikazioek balio juridiko osoa dute; edonola ere, hizkuntza-eskubideak bermatu beharko dira. Erakundeek ez dituzte inola ere bueltan bidaliko jasotako euskarazko idatzizko komunikazioak itzulita bidal dituzaten.
 - b) EAEko beste administrazio batzuei bidaltzen zaizkien idatzizko komunikazioak ele bietan egongo dira, edo, hala badagokio, euskara hutsean. Elebidunak izango dira, besteak beste, lehen komunikazioak eta zabalkunde handikoak. Bestalde, euskara hutsean bidaliko zaizkie euskaraz komunikatu nahi dutela berariaz adierazi duten administrazioei. Horrez gainera, euskara hutsean egon ahal izango dira administrazio hartzaileekiko ohiko harremana euskaraz denean edo komunikazioaren gai nagusia edo xedea euskara denean.
 - c) Euskaraz erantzungo zaie administrazioek hizkuntza horretan bidalitako idazkiei. Gainerako kasuetan, erantzunak ele bietan bidaliko dira.
 - d) Modu berean jokatu da EAEkoak ez diren administrazio publikoekin izandako idatzizko komunikazioetan, administrazio horietan euskara hizkuntza ofiziala bada.
 - e) Euskara hizkuntza ofiziala ez den kasuetan, komunikazioak elebidunak izango dira.
 - f) Erakundeek adostasuna sustatuko dute beste administrazio batzuekin, haien arteko komunikazioak euskaraz izan daitezen progresiboki.
3. *Erakundeetako langileei bidalitako idatzizko komunikazioak (Bideratuz, nomina, oharra, etab.)*
 - a) Erakunde bakoitzak bere langileekin dituen komunikazio administratiboak ele bietan izango dira, edo, hala badagokio, euskara hutsean. Elebidunak izango dira, besteak beste, lehen komunikazioak, komunikazio masiboak eta barruko zabalkunde orokorrekoak. Bestalde, euskaraz izango dira langileek jakinaraz-



- penak hizkuntza horretan jaso nahi dituztela adierazi badute. Horrez gainera, euskara hutsean egon ahal izango dira kasu hauetan: hartzaileen hizkuntza euskara dela jakina denean, hartzaileekiko ohiko harremana euskaraz denean edo idazkien edukiaren gai nagusia edo xedea euskara denean.
- b) Langileek bidalitako idazkiei erantzuten zaienean, honela jokatu da: erantzuna zein hizkuntzatan jaso nahi duten berariaz adierazi dutenean, egindako aukera errespetatutako da, eta, ez badute halakorik adierazi berariaz, euskaraz erantzungo zaie hizkuntza horretan jasotako idazkiei. Gainerako kasuetan, ele bietan bidaliko dira erantzunak.
 - c) Langileen eskura jartzen diren paperezko inprimakiak eta gainerako dokumentu estandarizatuak ele bietan egongo dira. Erakundeek inprimakiak edo dokumentu estandarizatuak bete behar dituztenean langileei bidaltzeko, aurreko a) eta b) letretan ezarritako irizpideak beteko dira.
 - d) Ez da inola ere bueltatuko jasotako idazkia itzulita bidal dezaten.
4. *Foru-dekretu honetan ezarritakoa bete behar duten erakundeetako organoen arteko idatzizko komunikazioak*
- a) Elebidunak izango dira, besteak beste, lehen komunikazioak eta erakunde bakoitzean barne-zabalkunde handikoak direnak. Bestalde, euskaraz izango dira erakundeon erabilera-planetan euskarazko administrazio-unitatetzat jotako zerbitzuekin dauden idatzizko komunikazioak. Halaber, euskaraz izango dira euskara erabiltzeko programa edo mikroplan bat (EraMi, etab.) ezarrita duten administrazio-unitateekin dauden idatzizko komunikazioak.
 - b) Erakundeetako organoek adostasuna sustatuko dute beste foru-entitate batzuekin beren arteko komunikazioa euskaraz izan dadin, modu progresiboan.
 - c) Euskarazko komunikazio guztiek balio juridiko osoa dute administrazio-organoen arteko komunikazioan; edonola ere, herritarren hizkuntza-eskubideak bermatu behar dira. Erakundeetako organoek ez dituzte inola ere bueltan bidaliko jasotako euskarazko idazkiak itzulita bidal ditzaten.

8. artikulua. — Testu elebidunak edo eleaniztunak idazteko irizpideak

1. Testuak zutabeetan idazten direnean, hau izango da hizkuntzen hurrenkera, ezkerretik eskuinera: euskara, gaztelania eta, besterik badago, erabili beharreko hizkuntza edo hizkuntzak. Testua oso luzea delako edo beste arrazoi batzuegatik, ezinezkoa bada testua zutabeetan idaztea, bertsio bat egingo da hizkuntza bakoitzeko.

2. Testuak zutabeetan idazten ez badira, lehenengo euskarazko testua jarriko da; azpian, gaztelaniazkoa, eta, gero, erabili beharreko gainerako hizkuntzetakoak. Oro har, testuetan, ez dira tartekatuta sartutako hizkuntza ezberdinetan idatziko esaldiak edo paragrafoak. Ahal den neurrian, hizkuntza bakoitzeko testuak bereiziko dira, bereziki hainbat hizkuntzatan idatzitako testuak txandakatzeak irakurtzea edo ulertzea zaildu dezakeenean.

3. Formulario, inprimaki eta abarretan, izenburu elebidunak dituztenean, goian jarriko da euskarazko testua, eta azpian gaztelaniazkoa. Barra (/) erabiltzen denean testuak bereizteko, euskarazkoa ezkerrean joango da eta gaztelaniazkoa eskuinean.

4. Argitalpenen kasuan, ondoz ondoko orrialde ezberdinetan idazten bada, euskarazko testua eskuineko orrialdean jarri beharko da.

5. Informaziorako, publizitaterako eta abarretarako testu laburretan (hitzak, logoak, siglak, esloganak eta antzekoak), euskarazko testua gaztelaniazkoaren aurretik edo gainean jarriko da beti. Testu eleaniztunetan, gainerako hizkuntzak bi hizkuntza ofizialen atzean edo azpian jarriko dira.

6. Artikulu honetan ezarritako irizpideak aplikatu ezin diren testu elebidun edo eleaniztunetan, euskarazko testua nabarmenduta egongo da.



7. Testu zuzenak eta ulergarriak:
 - a) Kasu guztietan, testuak zuzen idatzita egon beharko dute, erabilitako hizkuntzen gramatika- eta ortografia-arauak errespetatuta.
 - b) Horrez gainera, testuak argiak eta ulergarriak izango dira, hartzaile guztiek erraz uler ditzaten. Horretarako, hizkera argia, zehatza eta erraza erabiliko da. Emititzekoak diren testuetan (megafonia, ahots-postontziak, etab.), esaldi laburrak eta sintaxi errazekoak erabiliko dira, eta ahoskera egoera bakoitzean erabilitako komunikazio-kanalaren ezaugarrietara egokituko da.
 - c) Hala ere, hizkuntzaren arloko aholkularitza behar izanez gero, erabilitako hizkuntzen zuzentasuna eta testuen kalitatea bermatzeko, erakunde bakoitzean itzulpenaren arloko eskumena duen organoak aholkuak emango ditu testuak zuzentzeko eta berrikusteko, bereziki testu ofizialak eta zabalkunde handikoak direnean.
8. Halaber, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2018ko ekainaren 20ko 4/2018 Foru Araua 23.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorrira, kasu guztietan hizkuntzaren erabilera ez-sexista bermatuko da.
9. Dokumentazioa gutun-azaletan sartzea. Dokumentazioa gutun-azaletan sartzen denean, gutun-azala zabaltzen denean agertzen den lehen bertsioa euskarazkoa izatea bermatzeko moduan sartuko da.

II. TITULUA

HIZKUNTZA OFIZIALAK ITZULTZEKO IRIZPIDEAK

9. artikulua. — Itzulpenerako irizpide orokorrak

1. Bizkaiko Foru Aldundiaren eta haren erakunde autonomoen agiriak aldizkari ofizialetan euskaraz eta gaztelaniaz argitaratu behar badira, foru-sail bakoitzak edo erakunde autonomo bakoitzak bidali beharko ditu itzultzera itzulpen, terminologia eta hizkuntz teknologiararen arloko eskumena duen foru-organora. Foru-sektore publikoko erakundeek itzulpenari buruzko aholkularitza eskatu ahal izango diote itzulpen, terminologia eta hizkuntz teknologiararen arloko eskumena duen foru-organuari.
2. Dokumentuak elebidunak izan behar dutenean, barruko dokumentuak hizkuntza bietan sortuko dira, ahal den neurrian. Horretarako, dauden baliabideak erabiliko dira: hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta duten langileak, hizkuntza-gaitasuna duten langileak, eredu normalizatuak, tresna informatikoak eta abar. Tresna informatikoak dira, besteak beste, zuzentzaileak, online hiztegiak eta itzulpen-memoriak eta datu-base terminologikoak. Bitarteko horiek dauden beharrezkoak asetzeko behar adinakoak ez direnean, itzulpen arloko eskumena duen foru-organoa arduratuko da testuak itzultzeaz. Halaber, behar den besteko laguntza emango die erakundeei sortutako testuak zuzentzeko eta eredu normalizatuak egiteko (paperean egindakoak eta telematikoak), erakundeok egiten dituzten dokumentu elebidunetan bertsio biak zuzen egongo direla ziurtatzeko eta bermatzeko eta erakundearen hizkuntza-irudian eragitea ekiditeko.
3. Modu berean jardungo da erakundeei kanpotik euskaraz idatzita bidaltzen zaizkien dokumentuekin. Ezinbestekoa denean baino ez dira bidaliko itzultzera, hau da, ez da joko, besterik gabe, itzulpenaren arloko organo eskudunarengana, kasu guztietan.
4. Erakundeek administrazio-prozedurarako eredu normalizatuak prestatu eta erabiltzea sustatuko dute, itzulpen, terminologia eta hizkuntz teknologiararen arloko eskumena duen foru-organoarekin elkarlanean, itzulpenen eskaera zentzuzkoa izan dadin.
5. Testuak bidaltzeko, kontuan hartu beharko da Bizkaiko Foru Aldundian, testuak itzultzera bidaltzeko, unean-unean indarrean dagoen protokoloak dioena.
6. Gardentasunari buruzko 2016ko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 4.1.d) artikulua betetzeko, itzultzera bidaltzen diren testuak zuzen eta herritarrek ulertzeko moduan idatzita egon beharko dira, hizkuntzaren erabilera okerrak itzulpen-lanean eragin negatiborik izan ez dezan.



7. Itzuli behar den dokumentuari buruzko erreferentzia-material eta informazio-iturriak guztiak jarri beharko dira itzultzailearen esku, beharrezkoa den guztietan.

8. Foru-sailek edo erakunde autonomoek itzulpen, terminologia eta hizkuntz teknologiaren arloko eskumena duen foru-organora bidaltzen dituzten testuak honela sailkatuko dira: testu arruntak eta testu bereziak.

9. Edonola ere, itzulpen, terminologia eta hizkuntz teknologiaren arloko eskumena duen foru-organoaren buruak kudeatuko ditu testu horiek, lan-egoeraren eta aurrekontuko diru-baliabideen arabera.

10. artikulua.— Itzulpenerako irizpide espezifikoak

1. Testu arruntak:

- a) Foru-sailen eta erakunde autonomoen eguneroko jardunean sortu ohi direnak joko dira testu arruntzat; besteak beste, hauek: baimenak, ziurtagiriak, zirkularrak, Foru-Arauk, Foru-Dekretu Arauemaileak, Foru-Dekretuak, Foru-Aginduak, Ebazpenak, oker-zuzenketak, Batzar Nagusietarako zuzenketak eta erantzunak, oposizioetako azterketak, prentsaurrekoak, prentsa-oharrak, espedienteak, zigiluak, txartelak, hitzarmenak, ofizioak, iragarkiak, inprimakiak, lehiaketak, eskutitzak.
- b) Testu arruntak kudeatzeko kontuan hartuko da Bizkaiko Foru Aldundian testuak itzultzerantz bidaltzeko unean-unean indarrean dagoen protokoloan eta foru-dekretu honetan ezarritakoa.

2. Testu bereziak:

- a) Foru-sailen edo erakunde autonomoen eguneroko jardunbidetik kanpo sortzen direnak edo eguneroko lanerako behar-beharrezkoak ez direnak joko dira testu berezizat; besteak beste, hauek: Bizkaiko Foru Aldundiaren web-orrirako testuak, curriculumak, memoriak, txostenak, liburuxkak, liburuak, mapak, kongresuetarako testuak.
 - b) Testu bereziren bat sortzeko kontratatutako enpresaren batek testua itzuli behar badu, dagokion foru-sailak edo foru-erakunde autonomoak itzulpen, terminologia eta hizkuntza teknologiaren arloko eskumena duen foru-organora bidali beharko du testua, argitaratu edo ezarri baino lehen, organo horrek oniritzia eman dezan.
 - c) Testu bereziak itzultzerantz bidali baino lehen, dagokion foru-saila edo erakunde autonomoa harremanetan jarri beharko da itzulpen, terminologia eta hizkuntza teknologiaren arloko eskumena duen foru-organoarekin, lan hori antolatzeko. Foru-organo hori arduratuko da itzulpena kudeatu eta gainbegiratzeaz.
 - b) Testu bereziak kudeatzeko kontuan hartuko da Bizkaiko Foru Aldundian testuak itzultzerantz bidaltzeko unean-unean indarrean dagoen protokoloan eta foru-dekretu honetan ezarritakoa.
3. Testu bat arruntzat edo berezizat jotzeko zalantzak edo desadostasunak badaude, itzulpen, terminologia eta hizkuntza teknologiaren arloko eskumena duen foru-organoak ebatziko du.

III. TITULUA

FORU-DEKRETU HAU BETE BEHAR DUTEN ERAKUNDEEN JARDUN-EREMUETAN HIZKUNTZA OFIZIALAK ERABILTZEKO IRIZPIDEAK

11. artikulua.— Langileen etengabeko prestakuntza

1. Erakundeek neurriak hartuko dituzte langileei euskaraz egiteko eskaintzen zaizkien prestakuntza-ikastaroen kopurua handitzeko.

2. Halaber, beren zerbitzura dauden langileek prestakuntza-ikastaroak euskaraz egitea sustatu eta ahalbidetuko dute, bereziki erabilera sustatzeko programa edo mikroplan batean (EraMi, etab.) sartuta dauden langileen eta lanpostuaren hizkuntza-eskaki-zuna egiaztatuta duten langileen kasuan.

**12. artikulua.— Sarrera- eta irteera-erregistroa**

1. Sarrera- eta irteera-erregistroei lotutako aplikazio informatiko guztietan adieraziko da zein hizkuntzatan dagoen jasotako edo bidalitako dokumentua.
2. Dokumentuak dauden hizkuntzan edo hizkuntzetan inskribatuko dira erakundeen bulegoetako administrazio-erregistroetan.
3. Inskripzioa hizkuntza ofizial bakarrean egin bada, itzulpena bermatuko da, beharrezkoa den guztietan, erregistroa kontsultatu nahi dutenen hizkuntza-eskubideak errespetatzeko.

13. artikulua.— Dirulaguntzak

1. Hala dagokionean, hizkuntzaren normalizazioari buruzko klausulak sartuko dira dirulaguntzen deialdi guztietan.
2. Erakunde bakoitzaren jardun-eremuaren barruko dirulaguntzak eta gainerako laguntzak emateko arauetan eta, hala dagokionean, haien zenbatekoa zehazteko irizpideetan, kontuan hartuko da, besteak beste, hizkuntzaren erabilera, diruz lagundutako jardueraren xedean hizkuntzaren erabilerak eragin nabarmena badu, eta, oro har, Euskararen Erabilera Normalizatzeko 1982ko azaroaren 24ko 10/1982 Legearen 26. eta 27. artikuluetan ezarritako alorretakoa bada.
3. Erakundeen dirulaguntzaren bat jasotzen duten elkarte edo entitateek, pertsona fisiko nahiz juridikoez euskara erabili beharko dute diruz lagundutako jardueraren barruan egindako agerpen publiko orotan.
4. Pertsona edo erakunde onuradunek bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dituzte herritarrei beren jardueraren berri emateko egiten dituzten liburuxketan, karteletan edo bestelakoetan.
5. Arlo guztietan, eta dirulaguntza jaso dezaketen jarduerak eta antolatzen diren ekintzen eta egintzen hartzailleak kontuan hartuta, hizkuntza-irizpide argiak ezarri beharko dira deialdien oinarrietan, hizkuntza ofizialen erabilera bermatzeko eta jardueren hartzailleen hizkuntza-eskubideak bermatzeko.
6. Dirulaguntza kudeatzeko eskumena duten organoek beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte pertsona edo erakunde onuradunek foru-dekretu honetan xedatutakoa betetzen dutela bermatzeko.

14. artikulua.— Argitalpenak

1. Bizkaiko Foru Aldundiaren, haren erakunde autonomoen eta foru-sektore publiko erakundeen argitalpenak (aldizkariak, katalogoak, zabalkunderako argitalpenak, etab.) euskaraz eta gaztelaniaz editatuko dira.
2. Euskararen edo haren sustapenarekin zerikusia duten argitalpenak eta haurrentzako eta gazteentzako argitalpenak euskara hutsean editatu ahal izango dira.
3. Testu legalak eta arau-bildumak ere ele bietan argitaratuko dira.

15. artikulua.— Tresna eta aplikazio informatikoak

1. Herritarrentzako izapidetze telematikorako tresnek aukera eman behar dute bi hizkuntza ofizialetatik edozein erabiltzeko.
Izapidetze telematikoetan sortutako dokumentuak euskaraz edo ele bietan egongo dira erabiltzaileentzako direnean. Horretarako, tresna informatikoez aukera biak emango dizkiete erabiltzaileei.
2. Halaber, erakundeen barruan erabiltzeko berriaz sortutako tresna informatikoak bi hizkuntza ofizialetan egongo dira.
3. Erakunde bakoitzak beharrezko neurriak hartuko ditu foru-dekretu honetan ezarritakoaren arabera berritu, egokitu eta doitzeko bere eskumeneko tresna informatikoak.
4. Aplikazio informazioak diseinatzeko eta garatzeko faseetan, kontuan hartuko da hizkuntzari dagokion alderdia, bi hizkuntza ofizialetatik edozeinetan tresna elebidun baliagarriak sortzeko.



5. Programa informatiko komertzial edo orokorren kasuan, euskarazko bertsiorik badago, bertsio horri emango zaio lehentasuna hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta duten langileek betetako lanpostuetan ezartzeko. Halaber, euskarazko bertsioa instalatuko da erakundeen erabilera-planetan euskarazko administrazio-unitate izendatutako zerbitzuetako lanpostuetan, euskara erabiltzeko programa edo mikroplan bat (EraMi, etab.) ezarria duten organoetan eta, oro har, hala eskatzen duten langileen lanpostuetan.

16. artikulua. — Sareak, Internet eta intraneta

1. Interneten eta intraneteen eskuratu ahal diren erakundeen edukiak euskaraz eta gaztelaniaz kontsultatzeko moduan egongo dira.

2. Web-orrietara, intranetera eta abarretara sartzean, euskarazko orria agertuko da lehenbizi, eta orri horretan bertan egongo da gaztelaniaz eta gainerako hizkuntzetan (horrelakorik badago) dauden orrietara sartzeko lotura.

3. Aukera ematen denean izapideak Internet edo intranet bidez egiteko, izapide horiek euskaraz edo gaztelaniaz egiteko aukera eman beharko da.

4. Sare sozialetan, edukiak euskaraz eta gaztelaniaz argitaratuko dira beti, eta bi hizkuntzetan kontsultatzeko aukera eman beharko da.

5. Sare sozialetan (Facebook, Twitter, etab.) egiten diren komunikazioetan, euskarazko mezuak, argitaratu ondoren, gaztelaniazkoen gainean geratuko dira, ahal baldin bada.

17. artikulua. — Hizkuntza-paisaia

1. Bulego, egoitza zein lokaletako kanpoaldeko nahiz barrualdeko errotulazioa euskaraz eta gaztelaniaz egongo da.

2. Leku ikusgarrian egongo dira euskara erabilera sustatzeko lagungarri diren elementuak (ikurrak, euskara erabiltzeko gonbitak, etab.). Horrez gainera, euskara hutsean egon ahal izango dira barruko erabilerarako errotulazio-elementuak (oharrak, karpeten identifikazioak, unean uneko abisuak, etab.).

18. artikulua. — Iragarkiak, publizitatea eta kanpainak

1. Iragarpen ofizialak eta gainerako publizitate-ekintzak bi hizkuntza ofizialetan egingo dira. Hala ere, hartzailearen eta hedabidearen ezaugarriak kontuan hartuta, euskara hutsean egin ahal izango dira. Iragarkiak euskara hutsean argitaratuko dira euskarazko hedabideetan.

2. Kanpainen edukiak eta esloganak sortzerakoan, kontuan hartuko dira bi hizkuntzen ezaugarriak, edukiok eta esloganok baliagarriak eta komunikatiboak izan daitezen bi hizkuntzetan. Horretarako, komunikazio-kanpainetarako lehiaketa publiko eta kontratazioetan baldintza gisa eskatuko da kanpainaren mezuak, esloganak eta halakoak bi hizkuntza ofizialetan sortzea, eta ez da ontzat emango bi hizkuntzetako batean sortutakoaren itzulpen hutsa.

19. artikulua. — Izendapen ofizialak

Organo, egitarau, proiektu, jarduera eta ekintza guztiek euskaraz izango dute izena, gutxienez. Izendapen ofiziala ezartzeko, ezinbestekoa izango da itzulpen, terminologia eta hizkuntz teknologiaren arloko eskumena duen foru-organoak onartzea. Beraz, organo horri bidaliko zaio proposatutako izendapena.

20. artikulua. — Iruki korporatiboa

Iruki korporatiboa osatzen duten elementuak euskaraz egongo dira, gutxienez.

21. artikulua. — Ekitaldi eta ekintza publikoak

1. Foru-dekretu hau bete behar duten erakundeek antolatutako edo gauzatutako ekitaldi publiko guztietan (aurkezpenak, prentsaurrekoak, ekitaldi instituzionalak, hitzal-diak, mahai-inguruak, jardunaldi teknikoak, ikastaroak, erakusketak eta antzekoak) eta



ekintza publikoetan (jaialdiak, kirol-jarduerak, kontzertuak, kongresuak, etab.), bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatuko zaie partaideei.

2. Ekitaldiaren edo ekintzaren izaera dela-eta aldi bereko interpretazio-zerbitzua erabili behar bada, alde zuzenetik ongi zehaztuko dira interpretazioan izango diren hizkuntzak, eta zerbitzuaren kalitatea bermatzeko beharrezkoak diren neurriak hartuko dira.

3. Erakundeetako kargudunek eta langileek euskara erabiliko dute ekitaldia edo ekintza lurralde historikoan edo EAeko gainerako lurraldeetan egiten denean, baita euskara erabiltzen duten lurraldeetan egiten denean ere. Euskaraz hitz egiteko jariorik ez dutenek ere sustatuko dute euskara erabiltzea beren agerpen publikoetan.

4. Ekitaldi eta ekintza bakoitzean euskararen erabilera ahalik eta gehien bermatzeko, organo arduradunak hasiera-hasieratik definituko du hizkuntzaren tratamendua, alderdi hauek kontuan hartuta: ekitaldiaren helburuak, aztertuko diren gaiak, gizartean izango duen eragina, hartzaille edo entzule izan daitezkeenak, hizlari edo irakasleak, etab., baita erabili edo banatuko den materiala ere.

Komunikazioarekin zerikusia duten alderdiak ere aurrez ikusiko dira: agerraldiaren ezaugarriak (ahozkoa, irakurria...); proiektzioetan, eztabaidetan, erantzunetan eta beste-lakoetan erabiliko diren hizkuntzak, etab.

5. Halaber, hirugarren batzuek antolatuta, Bizkaiko Lurralde Historikoan egiten diren ekitaldi eta ekintza publikoetan, foru-dekretu hau bete behar duten erakundeen laguntza edo parte-hartzea badute —zuzenean edo zeharka—, euskararen presentzia eta erabilera bermatuko dira ekitaldiaren edo ekintzaren komunikazio-alderdi guztietan (publizitatea, jendearentzako informazioa eta arreta, megafonia, esataria, web-orriak, sare sozialak, kartelak, seinaleak, etab.).

22. artikulua.— Bilerak

1. Erakunde guztiek ahalegina egingo dute egiten dituzten bileretan euskara gehiago erabiltzeko.

Horretarako, bilera egin aurretik, hizkuntza-kudeaketari dagozkion arloak aztertuko dira; besteak beste, hauek: bileran hizkuntza ofizialek izango duten tratamendua, eman behar den dokumentazioa, proiektzioen materiala, aldi bereko itzulpena egiteko aukera eta hizkuntzaren ikuspegitik eragina izan dezaketen beste alderdi batzuk.

2. Bileraren deialdia euskaraz edo ele bietan egingo da, bileran parte hartuko dutenak eta bileraren helburua kontuan hartuta. Ahal den guztietan, hizkuntzek izango duten tratamendua zehaztuko da bileraren deialdian.

Ahalegina egingo da partaideekin adosteko bilera euskaraz egitea.

Bileraren akta bilera egin den hizkuntzan edo hizkuntzetan idatzi ahal izango da.

23. artikulua.— Kontratazio administratiboa

1. Kontratu bidez emandako jardueren edo zerbitzuen kasuan, foru-dekretu hau bete behar duten erakundeek eginez gero bete beharreko hizkuntza-baldintza berberetan jasotzeko eskubidea aitortzen zaie herritarrei.

2. Kontratazioa hasi aurretik, erakunde sustatzaileak kontratazioak bete behar dituen hizkuntza-baldintzak aztertu eta zehaztuko ditu, eta klausula administratiboen agerietan jaso beharko dira. Halaber, enpresa adjudikaziodunek foru-dekretu honetan xedatutakoa betetzen dutela eta hizkuntza ofizial biak zuzen erabiltzen dituztela zainduko du erakunde sustatzaileak.

3. Kontratuaren bidez eman beharreko zerbitzuaren prestazioaren ondorioz herritarrekin zuzeneko harremanak izan behar direnean, baldintza hauek beteko dira:

- a) Enpresa adjudikaziodunak herritarrek arreta hizkuntza ofizial bietan jasotzeko duten eskubidea errespetatuz eman beharko du zerbitzua.
- b) Herritarrentzako inprimakiak, oharrak eta jakinarazpenak euskaraz eta gaztelaniaz egin beharko ditu enpresa adjudikaziodunak.



- c) Foru-dekretu hau bete behar duten erakundeek kontratu bat adjudikaturik duten enpresek bi hizkuntza ofizialak erabili behar dituzte kontratuaren xede den jardueraren ondoriozko agerpen publikoetan.
 - d) Megafoniaz egiten diren komunikazioak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, hurrenkera horretan.
 - e) Hartzaille jakinik ez duten komunikazio guztiak ele bietan egingo dira, foru-dekretu honetan ezarritakoarekin bat etorrira.
 - f) Foru-dekretu hau bete behar duten erakundeetan, halako kontratu bat sustatzen duten organoen ardurak izango da enpresa adjudikaziodunek artikuluko honetan xedatutakoa betetzen dutela eta hizkuntzak zuzen erabiltzen dituztela bermatzea.
 - g) Halaber, kontratazioa sustatzen duen organoaren ardurak izango da hizkuntzaren arloko betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko jarraipena egitea.
4. Adjudikazioaren helburua herri-lan bat denean, jendaurreko seinale, txartel eta ohar guztiak euskaraz eta gaztelaniaz egon beharko dira, hurrenkera horretan.
 5. Kontratuaren helburua aholkularitza eta laguntza ematea denean, baldintza hauek beteko dira:
 - a) Enpresa adjudikaziodunek bi hizkuntza ofizialetan aurkeztuko dituzte beren lanak, klausuletan berariaz besterik ezartzen ez bada. Erakundeek ez dute sekula bere gain hartuko aholkularitza eta laguntza emateko kontratu baten bitartez sortutako lan idatzien itzulpenik.
 - b) Hizkuntza ofizialen erabilera zuzena zaindu eta begiratzea kontratua sustatu duen erakundearen erantzukizuna izango da, lanen zuzendariaren bitartez, eta, horretarako, itzulpen, terminologia eta hizkuntza teknologiaren arloko eskumena duen foru-organoren laguntza eta aholkularitza izango ditu.
 6. Kontratua sustatzen duen organoak klausula administratiboan agiritan zehaztu eta jasoko ditu aurreko paragrafoetan adierazitako hizkuntza-irizpideak, eta betetzen direla zainduko du.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengo Xedapen Gehigarria. — *Foru-dekretu honen ondoriozko kudeaketa*

Euskara eta Kultura Sailaren egitura organikoari buruzko erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2018ko martxoaren 6ko 22/2018 Foru Dekretuaren 29.c) artikuluan xedatutakoarekin bat etorrira, Euskara Zuzendaritzari dagokio foru-dekretu honekin zerikusia duten alderdi guztiak kudeatzea.

Bigarren Xedapen Gehigarria. — *Erabilera-planak*

Hizkuntzen normalizazio gaietan eskumena duen organoarekin koordinatuta, erakundeek foru-dekretu honetan ezarritako irizpideak betetzeko eta betearazteko beharrezkoak diren neurriak eta ekintzak jasoko dituzte euskararen erabilera sustatzeko planetan.

Hirugarren Xedapen Gehigarria. — *Epaimahaien eta batzordeen osaera*

Foru-dekretu honetan ezarritakoa bete behar duten erakundeek sortutako epaimahai eta batzordeen osaeran, ahal den guztietan, kideen %50ak, gutxienez, 3. hizkuntza-eskakizunari dagokion ezagutza-maila izango du.

Laugarren Xedapen Gehigarria. — *Administrazio-prozedura batean erabili beharreko hizkuntzari buruzko desadostasunak*

Administrazio-espeditente edo -prozedura batean pertsona batek baino gehiagok parte hartzen badu eta ez bada adostasunik lortzen erabili beharreko hizkuntza dela eta, espeditentea edo prozedura sustatu duen pertsonak aukeratutako hizkuntza erabiliko da, betiere gainerako alderdien hizkuntza-eskubideak errespetatuta. Behar diren baliabideak jarriko dira esandakoa betetzeko.



XEDAPEN INDARGABETZAILEAK

Xedapen Indargabetzaile Bakarra

Indargabeturik geratzen da 22/2009 Foru Dekretua, otsailaren 17koa, Bizkaiko Foru Aldundiaren jarduera esparruan hizkuntza ofizialen erabilera arautzen duena. Horrez gainera, indargabeturik geratzen dira foru-dekretu honetan xedatutakoarekin bat ez dotozen eta haren aurkakoak edo bateraezinak diren maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak.

AZKEN XEDAPENAK

Azken Xedapenetako Lehenengoa. — Eskumen-titulua

Ahalmena ematen zaio Euskara eta Kulturako foru diputatuari foru-dekretu honetan xedatutakoa behar bezala betetzeko beharrezkoak diren egintza, jarraibide eta zirkular guztiak eman ditzan.

Azken Xedapenetako Bigarrena. — Indarrean jartzea

Foru-dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2019ko maiatzaren 28an.

Euskara eta Kulturako foru diputatua,
LOREA BILBAO IBARRA

Ahaldun Nagusia,
UNAI REMENTERIA MAIZ